

HELDUEN ALFABETATZE- -EUSKALDUNTZEA: ERAKUNDETZE POLARIZATUA (1981-1990)

Iñaki Zabaleta Imaz

Helduen alfabetatze-euskalduntzeak 80.eko hamarkadan izandako bilakaerak ulertzeko batere erraza ez den egoera korapilotsu baten aurrean jartzen gaitu: berreuskalduntze-lanetan diharduten talde eta erakundeen zerrenda amaigabea, hauen arteko koordinazio eza, aparteko eragina duten Euskal Herriak gaur egun dituen hiru marko juridiko-instituzionalak, euskararen normalkuntza bideratuko lukeen plangintza baten falta, gatazkaz blai aurkitzen dugun giroa, etab.

Artikulu honen helburua, hain zuzen, egoera horren ardatz nagusien berri ematea da, horretarako aztertzen saiatu garen arazoaren, gure ustez, ezinbestean kontutan hartu beharreko alderdi hauek azpimarratzen direlarik: AEKren erakundetze-prozesua eta HABEren sorrera, instituzioen kontrola (HABESEA legea eta bere garapena Euskal Elkarte Autonomoan, eta helduen alfabetatze-euskalduntze inguruan Nafarroako Gobernuaren politika), eta, azkenik, autonomiaren auzia.

Sarrera

Alfabetatze inguruan dabilzan erakunde eta taldeen egungo egoera ulertu ahal izateko, ezinbestekotzat jotzen dugu alfabetatze-mugimenduaren koordinatze-prozesutik erakundetze-prozesura doan bidearen nolabaiteko jarraipena egitea. Jakina, egin beharreko azterketa garaiko baldintza sozial eta politikoek osatzen duten markoan koka beharko litzateke. Alfabetatze Euskaduntze Mugimenduak –zentzu zabalean harturik– izan duen izugarritzko bilakaera ulertu nahi izanez gero, behar-beharrezkoa da frankismoaren azken urteak Estatu espainiarrean izango den erreformaren lehenengo urteekin lotzen dituzten ibilbideari begirada zuzentzea.

Alde batetik, eta Hego Euskal Herrian kokaturik, nahiz eta ezin ahaztu, arrazoi desberdinak direla medio, Iparraldean bere eragina izango duela ere, Estatuaren aurkako azkeneko urteetako borrokak izugarritzko eragina izango du euskal identitatearen, nortasunaren, sendotzean, kontzientzia nazionalaren gorakada nabarmentzen delarik. Ondorioz, alfabetatze-euskaduntze mugimenduak, inoiz ez bezala, egoera indartsu eta osasuntsua bizi izango du, eta sorturiko Euskal Herri euskaldunaren helburu, amets edota nahiaren inguruko itxaropenaz blai ekingo zaio urte horietako lanari.

Bestalde, Estatu “berri”aren egituraketak etorkizunean funtsezkoak izango diren aldaketak ekarriko ditu,

maila instituzionalean sortzen direnak, izango duten eraginagatik, azpimarratu behar direlarik. Ikusi ahal izango dugu Eusko Jaurlaritzaren politikak, baita, urte batzuk beranduago, Nafarroako Gobernuarenak ere, nola baldintzatuko duten alfabetatze-euskalduntzearen geroa, ahaztu gabe, nahiz eta lurralde mugatuan jokatu, Euskal Herriko beste herrialdeetan ere begibistako eragina izango duela, azkenean batasuna ezaugarri naguzitzat izan duen fenomenoak polarizazioaren bidea hartuko duelarik.

Aipaturiko alfabetatze-euskalduntzearen sendotzea eraketa-prozesu baten barruan kokatu beharko genuke ere, eta, alde horretatik, AEKren protagonismoa, mugimendu beraren umea baita, urte horietako ezaugarri nabarmenena dugu. Honek koordinatsetik erakundetzerako izugarritzko garrantzia izango duten urratsak emango ditu, nahiz eta normalizazioarantz doan bidean HABEren sorrerak inflexio-puntu bat markatu, bi erakundeen arteko gatazkari hasiera emago diona hain zuzen.

1. HABEren sorrera eta AEKren alternatiba

HABEren sorrerari heldu aurretik, gogoratu behar dugu EKN eta Garai-koetxearen lehenengo gobernuaren garaian, AEK normalizazio instituzionalaren bidean jarriko lukeen asmoarekin –hau ente publiko bihurtuz– bat zetorrela, bai administrazioa bai koordinakundea ere, baina ez da Euskal Elkarte Autonomoaren administrazio eta AEKren arteko

negoziaketarik burutzen. Jakina denez, AEKren sorrerak Euskal Herriko alfabetatze-euskalduntzearen fisionomia erabat aldatu zuen, herri-mugimendu zen hari egitura berria egokitu zitzaierarik. Nazio-mailakoa zen koordinatze-lanak, eta izandako bilakaerak, alfabetatze-euskalduntze mugimenduari inoiz izan ez zituen oinarri sendoak eskaini zizkiola ukatzerik ez badago ere (azpiegitura-eta finantzaketa-arloa, didaktika, irakaslegoa, ...), ikusi izan zen koordinakundea instituzionalizatze bidean jarri behar zela berreuskalduntzearen beharrari etorkizunean modu egokiz erantzun ahal izateko, horrek bideratuko baitzukeen herri oso baten arazoari aurre egingo liokeen plangintza orokor bat.

Horrela, AEKn etorkizunean erakunde publikoa izateko asmoari buruzko hausnarketa eta eztabaida piztu zen. Honek publikotasun-kontzeptuaren inguruko ikuspegi kontrajarriak azalarazi zituen, baina guzti hau, AEKren barne-egituraketa bilakaeran baino, erreforma politikoak sortu berriak zituen Hego Euskal Herriko erakunde ofizialekin izandako harremanen testuinguruan ulertu beharko litzateke. AEK eta Euskal Elkarteko Administrazioa harremanetan hasten dira, bakoitzak lehenengoa publiko bihurtzeko bere proiektua mahai gainean jartzen duelarik. Eusko Kontseilu Nagusiak euskara berreskuratzeko zuen aurreproiektua aurkeztu zuen eta koordinakundeak "AEKren Birreraketarako aurreproiektua" izenekoa ("Altsasuko txostena"). Gehiegi luzatu gabe, nahiz eta AEK publiko bihurtzearen aldekoak izan

biak, esan daiteke koordinakundearenak honen autonomia eta protagonismoaren defentsa egiten duen bitartean, EKN administrazio publikoaren partehartzeaz arduratzen dela, honen zuzendaritza-funtzioa nabarmenduz. Nolanahi ere, eta proiektu hauen konparaketa zehatza interesgarria bada ere, ezin da esan -espekulazio hutsa litzateke- bi proiektu horien inguruko eztabaidak zer eskainiko zukeen, ez baitzen, lehen esan dugun bezala, negoziaketarik burutu. Eta ez hori bakarrik; are gehiago, 1981ean Eusko Jaurlaritzak Helduen Alfabetatze Berreuskalduntze Erakundea sortzeko hartutako erabakiak AEK ofizial bihurtzeko asmoa bertan behera uzten du, koordinakundea eta HABEren arteko gatazkaren lasterketari irteera ematen zaiolarik. Gertakizun horrek, hain zuzen, koordinakunde-izaera gainditu, eta erakunde bihurtzeko urratsak bultzatzen ditu AEK barnean (HABE sortzen den urte berean, koordinakundeak izandako Zestoako mintegian, AEKren erakundetze-prozesua da eztabaida-puntu nagusia).

Autonomia eta herri dinamika alfabetatze-euskalduntze irakaskuntzaren ardatz nagusitzat hartzen duen AEKrentzat izugarritzko kolpea izan zen HABEren sorrera. Arrazoa oso sinplea da: ezin da berreuskalduntzearen geroa mundu politikoaren aldakortasunaren esku utzi eta, beraz, instituzioek ez lukete, laguntza eskaintzeaz gain, zuzendaritza-ardura hartu behar. Esandakoari, honako hau gehitu beharko genioke: Euskal Herri osoaren berreuskalduntzea lortu nahi izanez

gero ezin da nazio-mailan hedatuta dagoen herri-mugimendua ordeztu (lekuharketa litzateke hau) eta, hau gutxi ez bada, Euskal Herriak bizi duen zatiketa politiko-administratiboak "Euskal Herriak euskara berreskuratzeko elebitasun soziala epe laburrera lortuko duen euskara-irakaskuntza"¹ instituzioen aldetik bultzatzea eragozten du, horiek ez baitute proiektu nazional bati aurre egiteko gaitasun politikorik. Instituzioek, horretarako ahalmenik ez baitute, ezin diote euskararen hizkuntz plangintza nazional bati aurre egin, eta hau da, hain zuzen, euskarak inolako salbabiderik baldin badu, AEKk guztiz premiazkoa, derrigorrezkoa, ikusten duena.

Beraz, AEKk, lehenik eta behin, HABEren sorreran planteamendu ordezkatzaila ikusten du, erregulazioaren topikoa erabiliz²; baita selektiboak direnak, akademiakeri joerak, kontrola, burokrazia eta dirigismoa ere³. Horrelako diagnosi bat eginez gero, helduen alfabetatze-berreuskalduntzerako erakunde ofizialaren aurrean, AEKk bere alternatiba definitu behar du: akademiakeriaren aurrean, hau gainditzeko asmoarekin, euskararen herri-irakaskuntza bultzatu; nahiz eta ondorio biderkatzailea dakarrenari lehentasunez erantzun, selektibitatez jokatzearen aurka, zabalkundez jokatu diglosia gainditzeko behar-beharrezko bitartekoa den helduen irakaskuntzan; ikas-elkarteak sendotu, zuzendari-figuraren aurrean ikasle/irakasle taldeen dinamika bultzatuz; eta eraketa zein didaktika arloetan, kontrola eta burokraziaren ordeztu, gestio demokrati-

koa⁴. Finean, pentsatzen da euskara zabaltzearen helburu nekezari aurre egiteko, derrigorrez euskararen berreskuratze-mugimenduari arnasa eman dion herri-dinamika bera bultzatu behar dela.

Gauzak horrela, AEK bere irakaskuntza-estrategia orokorra diseinatzen saiatuko da, aipaturiko helburua (hizkuntzaren berreskurapena elebitasun soziala lortuz epe laburrera), helduen alfabetatze-euskalduntzeari dagokion esparruan gauzatzen saiatuko delarik. Euskal hiztun asko sortu nahiak, ondorio biderkatzailea duten hainbat ekintza aurrera ateratzera behartzen du: kalitatezko irakaskuntza, irakasle-eskola, ikaslearen premiei erantzun egokia, giroa aldatu euskararen alde (eskolatik kanpo atera euskara), AEKren azpiegitura sendotu eta dinamizatu, ...⁵.

Zentzu horretan, planifikazio orokor batean kokaturiko lanari ekiten zaio. Izandako esperientziaren ondorioz ikasturte normaleko orduak gehitzea eta ikastaro trinkoak zein eskualde euskaldunetan barru-ikastaroak, euskaltegiak eta irakasle dedikatuak ere, ugaritzea erabakitzen du AEKk. Horrela, irakaskuntzaren efikazia lortzeaz gain, euskal giroa gehitzeko, edota ez dagoen lekutan sortzeko, tresna ezinhobea du eskutartean. Instituzioek egingo dutenari begira geratu gabe, AEKk uste du inizatiba hartu behar dela ahal den eta kalitatezko euskaradunen kopuru zabalena lortzeko.

Beharbada, honen inguruko gai-pare bat argitzea komeniko litzateke,

bereizteko, alde batetik, zer den zerbitzu baten eskaintza alfabetatze-euskalduntze arloan, eta, bestetik, akademi maila gaindituz, kanpoan eragina izan nahi duen irakaskuntza-iharduera. Jadanik, AEKk Arantzazu eta Aralarreko mintegietan, berreuskalduntzearen helburuari erantzuteko ahalmenaz izandako hausnarketaren ondorioz, eragina izan zezaketen faktoreak aztertzerakoan, bi maila bereiztu ziren⁶. Eskola-mailari dagokiona izan zen lehena; hemen irakaslego eta irakaskuntza arloko norabideak zehaztu ziren (irakasleen profesionalizatzea, irakasleen prestakuntza eta irakaskuntzaren kalitatea eta kontrola), eraketa-arlokoak (koordinazioa, homogenotasuna, estabilitatea, publikotasuna eta partehartzea), eta finantzabidekoak ere (matrikula kobratzea, instituzio publikoen babesaren lortzea). Hau guztiz garrantzizkoa izanik, ikusten da estrategia akademiakerian eror zitekeela, maila hori gizartean kokatzen den beste maila bati lotzen ez bazaio. Hau da, irakaskuntzak eragin bat izan behar du gizartean, alfabetatze-euskalduntze iharduerak eskolako hormak gainditu behar dituelarik eta, bestalde, gizarteak eskain ditzakeen laguntza onuragarriak jasotzeko prest agertu behar dela.

Zentzu horretan, adibidez, kontutan izan behar da, nahiz eta hau euskal eskolako “klientea” ez izan, berezko euskaradunen protagonismoa ezinbestekoa dela berreuskalduntzean⁷ eta, beraz, euskaltegi batek, esate baterako, zentzu klasikoan eman dezakeenaz gain, kalean dagoen elementu horrengana jo behar dela beharrezkoa

den bere inplikazioaren bila; hots, hiztun berriak eskolak jasotzeaz ez ezik, eskola-kalea batzeko zubia behar du (hemen kokatzen da, adibidez, batere “akademikoa” ez den laguntzailearen irudia). Laburbilduz, AEKren ustetan, alfabetatze-euskalduntze zerbitzu bat eskaintzea ez da nahikoa, eta bere nahiak, estrategiak, euskal jendea masiboki mobilizatzea eskatzen du, eta hau ezin daiteke aurrera eraman herritarra ez den irakaskuntz-alternatiba batez ez bada: “are handiagoa iruditzen zaigu alternatiba honen beharra boterea hain makal agertzen delarik euskararen aldeko plangintzan”⁸, “herria girotu eta kontzientziatu behar da, herriak argi eduki dezan bere papera ongi betetzeak ikasprozesuan inportantzia duela”⁹.

Esandakoak agintari publikoen zereginaz eta irakaskuntzaren publikotasunaz pentsatzera garamatza. HABEren sorrera, hain zuzen, bi gai hauek osatzen duten binomioan ulertu behar da: Administrazioak (kasu honetan Euskal Elkarte Autonomokoak) bere gain hartu behar du berreuskalduntzearen ardura, alfabetatze-euskalduntze irakaskuntza publikoa bultzatuz. AEK arrazoi hauen alde azaltzen da (arrazoien alde, baina ez HABE bezalako erakunde bat sortzearen alde) planteatzen duenean, inongo zalantzarik gabe, Euskal Herriko aginte publikoak bere gain hartu beharko lukeela berreuskalduntzearen ardura, “bere gain hartu behar duela plangintza orokor hau estatu-arazo nagusi bezala”¹⁰. Baina sail horren garrantziaz jabeturik agertu nahi duen administrazioak, AEKren ustez, begibistan eta esku-eskuan

dituzte irakaskuntza-erakunde herritar-
rak, eta hauen artean AEK, Euskal
Herri osoan zehar hedaturik jokatzeko
duen bakarra.

Publikotasunari dagokionez,
gainera, administrazioak bete
beharreko paperak beste era batekoa
izan beharko luke, AEKren iritziz.
Honek, herri-mugimenduak sortua eta
herri-mugimendu gisa bizi denez, ez
du bere burua pribatutzat hartzen,
baina ez du uste irakaskuntza publikoa
irakaskuntza ofizial moduan ulertu
behar denik. Are gehiago, “helduen
irakaskuntza publikoa sor dadin urrats
garrantzitsuak eman ditu”¹¹: irakas-
kuntzaren dohaintasunera hurbiltzen
ahalegindu da -”irakasleen lepotik
ere”- (eta horregatik eskatzen du orain
diru publikoz subentzionatua izatea);
gestio demokratikoa erabili du; kontrol
ideologikorik gabeko irakaskuntza
pluralista bultzatu; herri-irakaskuntza
planteiatu,... Eta irakaskuntza
publikoan erakunde ofizialen egitekoa,
hauxe izango litzateke: legez eta orota-
riko neurri akuilagarritz inguratzea
euskararen irakaskuntza; edozein
irakaskuntza publiko jatorri dagozkion
aipaturiko baldintzak onartzea eta
bultzatzea; eta zerbitzu publikoa
denez, diru publikoz ordaintzea. Beraz,
AEKk instituzioek eskain dezake-
tenaren beharra azpimarratzen du,
funtsezko ardura baitute berreuskal-
duntzean, baina Eusko Jaurlaritzak
sortu berria duen HABE erakunde
kritikatzen du (ezin da administratiboa
publikoarekin identifikatu), honek ez
baitu betetzen erakunde publiko bati
dagozkion oinarrizko baldintzak.
Bestalde, ildo honetatik jarraituz, esan
behar da AEKk, helduak euskaldun-

tzeko eta alfabetatzeko, beharrezkoa
ikusten duela Erakunde Publikoa
sortzea¹², Euskal Herriko beste
edozein elkarte edota erakunderekin
batera, botere eta instituzio publikoek
ere parte hartuko luketelarik, ”bere-
-bera duen eginkizuna betez”.

Oinarrizko den finantzabideen
gaiari begiratuz, HABEk ezarritako
subentzio-sistemaren aurka doa AEK,
hau borrokagune zentral bihurtu
delarik koordinakundearentzat (honen
iritziz, hau AEK apurtzera bideratzen
duen HABEren jokabidean kokatu
behar da¹³. Hark subentzioa ikasleari,
HABEk berak egindako azterketa
gaindituz gero, emateko asmoa badu,
AEKren ustez erakundeak jaso
beharko luke, emandako orduen
arabera, eta ikasturtearen hasieratik
zehaztu beharko litzateke (ez da
administrazioak kontrolatzeko
eskubidea ukatzen, diru publikoa
denez, eta HABEk kontrol-mota jakin
bat jarri ahal izango zukeen). Erakunde
honek ez du proposamena onartzen eta
AEKk zuzenean Kultur Sailara jotzen
du negoziaketa bat burutzeko asmotan,
azkenean subentzioak jasotzeko
akordio batera heldu zirelarik –ikasgu-
-moduluak, kontrol administratiboa eta
kontrol pedagogikoa– (1983). Nola-
nahi ere, AEKrentzat guztiz pozgarria
izan arren, subentzio egokiak, kontrol
onargarria eta errekonozimendu
ofiziala lortzen den neurrian, akordio
hori ez da inoiz praktikan jarri, nahiz
eta Labaienek sinaturiko hitzarmena
errespetatzeko asmoa azaldu horren
ondoren Kultur Sailburua izango den
Etxenikek. Hitzarmenak sorturiko
itxaropenak, AEKri dagokionez,
1983ko urte amaieran aldarrikatutako

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundea Sortarazteko eta Euskaltegiak Araupetzeko legearekin bukatu ziren, hemendik aurrera HABESEA legearen arabera hartuko baitira helduen alfabetatze eta euskalduntze arloei dagozkien erabaki guztiak.

2. HABESEA legea

Euskal Elkarte Autonomoko legebiltzarrak “Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortarazteko eta Euskaltegiak Araupetzeko” legea (Azaroaren 25eko 29/1983; EHAA, 1983-12-12) onartzen du, elebidun izan dadin herria finkatzeko, helduen berreuskalduntzerako zerbitzu bat sortzea beharrezkotzat jotzen baita. Helduei euskararen irakaskuntza heleraztea du helburu, eta hori ahalbideratzeko, dagozkion arloak (teknika-bideekiko ikerketa, irakasleen prestaketa, irakasmetodologiekiko azterlanak, etab.) bideratzeko ardura HABEk hartuko du. Hain zuzen, I Idazpuruaren lehenengo atalean, HABE sortarazten da ofizialki; lege-nortasun autonomoa eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa izango du, eta erakunde burujabe gisa, Hezkuntza eta Kultura Sailari atxikita egongo da.

HABESEA legeak, HABE sortzeaz gain, bere zereginak zeintzuk izango diren arautzen ditu¹⁴, gobernu-organoak, eta hauen erakuntza eta egitekoak, zehaztu¹⁵, euskaltegiak¹⁶, eta, azkenik, HABEren ekonomia¹⁷ araupetzen ditu.

HABEren zereginak, laburbilduz, hauek izango lirateke: helduei euskara irakastea eta horien euskalduntzearen eta alfabetatzearen sustaketa; helburu hauek lortzeko metodo eta baliabideak bilatzea eta ikerkuntzaren sustapena; didaktika eta pedagogia arloko materiala sortaraztea eta argitaratzea; irakastegietan egitarau bereziak egitea; irizpide soziolinguistikoak kontuan hartuz ikastegiak sustatzea; “euskalduntzeko eta alfabetatzeko lanetan ari daitezen herri eta norbanako-jabetzapeko erakundeei laguntzea, eta bai egitamu zehatzetarako horiekin hitzarmenak egitea ere”¹⁸ Hezkuntza eta Kultura Sailari proposamena luzatzea ikastaroak gainditu dituztenek agiria eskura dezaten; eta bere ardura-pekko gaietan erakunde publikoek gomendaturiko ekintzapideak.

Bestalde, gobernu organoei dagokienez¹⁹, hauek zehazten dira: Zaingo-Batzorde Arteztailea (HABEren ordezkoa izan, erakundearen helburuak bete daitezen arduratu eta bere ihardunerako arauak jarri,...), Irakaskuntza Kontseilua (irakaskuntza arloko aholkuak), Lehendakaria (Hezkuntz eta Kultura Sailaren ordezkotza –sailburua–, “erakundeko goreneko arta eta antolakideketa”, ...) eta Artezkari Nagusia.

Baina, beharbada, euskaltegiak araupetzen dituen idazpuru²⁰ dugu interesgarriena, AEKn eta alfabetatze-euskalduntze lanetan ari diren beste erakundeetan eragin zuzena izango baitu. Lehenik eta behin, euskaltegiak sailkatzen dira; pribatuak edo publikoak izan daitezke. Azkeneko hauek, “Jaurlaritzaren Dekretoz sortarazi eta

HABEri eratzikitakoak eta Foru Diputazioek, Udalek edo hoiien menpeko erakundeek sortarazitakoak”²¹ dira (gutxienez zuzendaria eta idazkaria izan beharko ditu euskaltegi bakoitzak).

Pribatuak, bestalde, bi eratakoak izan daitezke: homologatuak (“sendependunak”) eta libreak (“iareak”). Lehenengoak “araudi-bidez jar dedin moduan Hezkuntza eta Kultura-Sailak horrelakoetan sailkatuta egon, eta irakaskuntza-ahalmen osoa izango dute”²². Libreak, berriz, “agiriak edo egiaztagiriak lortzeko gaingitu beharreko saioak eratzeko gaitasunik ez dutenak. Herri-euskaltegi bati atxikita egon beharko dute, eta hauetako irakasleek egingo dizkiete ikasleei...azterketak”²³.

Ezarritako euskaltegien sailkapen honek izugarritzko garrantzia izango du, kategorien arabera banatuko baitira subentzioak. Eta hain zuzen, kategoria bat edo bestea lortzeko bete beharrezko baldintzen artean, irakasleek bete beharrekoei dagozkienak izango dute aparteko eragina. Hogeigarren atalak dioen bezala, “Hezkuntza eta Kultura-Sailari dagokio HABEko Zaingo-Batzorde Arteztailearen saloz herri-euskaltegietako eta norbanako-jaurgopeko sendependunetako irakasgaiak orohar antolakidetzera, horiekiko ikuskaritza eta horietako irakasleei eskatzen zaizkien tituluak araupetzea, eta bai Euskaltegitarako eraikintzek bete beharko dituzten teknikaren aldetikako baldintzak eta, orohar, irakaskuntza-ihardunari datxezkion guztiak”, baita ikastaldiak amaitzerakoan eman beharreko agiria

edota egiaztagiria ere. Beste hitz batzuetan esanda, Administrazioak, HABEren bitartez, euskaltegien kontrola izango du, kategoria batean edo bestean kokatzeko, horretarako, berak ezarritako euskalduntze-alfabetatze irakaskuntzarako baldintzak (irakaslegoaren titulazioa, euskaltegien egoera teknikoa, irakaskuntza-iharduerak) betetzen diren ala ez, ikuskaritza-sistema egokituz.

Lehen genion bezala, irakaslegoari dagozkion baldintzek izango dute eragin ikaragarria. Begiratzen badugu, oraintxe aipatu dugun HABESEA legearen 20. artikulua garatzen duen Kultura Saileko Agindua (1984/6/8; EHAA, 1984-6-20), ikusiko dugu beste baldintza batzuek gain, 11. atalak haxe dioela: “Euskaltegi Publiko eta Pribatu homologatuak irakaslegoak honako baldintza hauek bete beharko ditu: a) Magisterioduna, diplomatua edo lizentziatua izatea. b) EGA edo balio bereko beste tituluren bat edukitzea”. Hemen dago, beste arrazoi batzuen artean, HABESEA legeak, eta bere garapenak, AEKren errefusa sortarazten duen garrantzitsuenetariko bat; alde batetik, bere irakaslegoaren gehiengoak ez du baldintza hau betetzen eta, ondorioz, subentzio-iturriak ez du ur-tanta batzuk besterik emango, eta bestetik, sakoneko arrazoietara joanez, uste du baldintza horiek ez dutela kalitatezko irakaskuntza ziurtatzen (hau irakasle-eskolaren bidez etorriko litzateke).

Baina ez dira hemen amaitzen AEKk lege honen aurka joateko arrazoiak. Adibidez, eta ebatzorganoari dagokionez (Batzorde Arteztailea edo

Patronatoa), gehiegizkoa iruditzen zaio Gobernuak izango duen presentzia²⁴, irakaskuntza alorrekoak ia erabat bazterturik geratzen direlarik (Irakaskuntza Kontseiluak aholkuak emateko eskubidea baino ez du)²⁵; ikaslegoaren eskubideak aipatu ere ez dira egiten, eta herriaren eta laguntzaileen gerizarik ere ez dago²⁶. Gainera, Irakaskuntza Kontseiluko ordezkariak Patronatuak (Zaingo Batzorde Arteztaileak) izendatzen ditu²⁷, eta euskaltegietako zuzendariak ere²⁸, ikaslekaratek edo klaustroek izendatu beharrean²⁹. Orokorrean, gobernu-organoei dagokienez, sortutako erakundeak “AEKk ulertzen duen publikotasuna ez du onartzen”³⁰, Euskal Herria berreuskalduntzen ari direnek ez baitute parterik eta guttiago erabakirik; koordinakundearen ustez, administrazioak ez du ulertzen, goitik-beherako prozesua bultzatzen duenean, euskararen berreskurapena herri baten ardura dela, eta, beraz alfabetatze-euskalduntze mugimenduaren esku ipini beharko lituzkeela ahalmen gehiago, hauek murriztu beharrean: “irakaskuntza pribatutasuna bultzatzen du eta, beraz, publikotasuna ez bakarrik frenatzen du, baizik eta publikotzat jotzen duen apurra pribatu administratiboa baino ez da; ... gestio demokratikoa goitik behera ukatzen du, irakaskuntzaren autonomia ere ukatu egiten du, herri-dinamikarik ez du onartzen, ...”³¹.

Legearen helburuaren aurka ere azaltzen da AEK. Zio edo Motiboen adierazpenean esaten denez, legea elebitasuna lortzera doa -”benetan elebidun izan dadin herri bat”-, benetako gizarte-elebitasuna helburu-

tzat hartu ezin denean lurralde jakin batean, soziolinguistek azaltzen dutenez, lortu ezina baita, hizkuntza batek bestea beti ordezkatzeko duelako³². AEKren helburua, zentzu horretan, Euskal Herria berreuskalduntzea da, euskara benetan hizkuntza nazionala izan dadin, elebitasunaren teoria zeharo baztertzen duelarik.

Bestalde, “AEKk eskatzen du Euskal Herri osorako planifikazio orokorra eta ez Komunitate Autonomoko bateango egitamuketa”³³ eta, beraz, edozein eratan, uste du HABESEA bezalako lege batek ezin diezaiokeela erantzun egokia eskaini Euskal Herriaren berreuskalduntzearen erronkari. AEKren jarrera zehatzagoa ezagutu nahi izanez gero, ikus, bat ere onartua izango ez den, legearen garapenean egindako enmenda ugari³⁴.

3. AEKren erakundetzea eta Kulturgingintza

Bidezko Ikaskuntza

Lehen genion bezala, HABEren sorrerak eragina izango du AEKren koordinakunde-izaera gaitzera eramango duen erakundetze-prozesuan. Jadanik, epe laburrerako taktika finkatzeko asmotan, 1981ean Zestoan ospaturiko mintegian, eraketari dagokion garrantzi aparta izango duen erabakia hartzen da: AEK erakunde bihurtu. Pentsatzen da honek AEKren alternatiba sendotu egingo duela, koordinazio hutsa (erabaki ez-binkulanteak, taldeen autonomia osoa, etab) gaitzitzen den

neurrian Euskal Herri mailako beharrezkoa den proiektu bateratu bat aurrera atera daitekeela³⁵. Gogora dezagun EKN-Eusko Jaurlaritza eta AEKren arteko negoziaketak ez burutzeak erakundetzearen arazoa airean uzten duela. Eta hau da hain zuzen mintegi honetan eztabaidaturiko gai nagusia, erakundetze-prozesuan urrats sendoak eman ahal izateko honako arlotan eragitea proposatzen delarik: AEK bakarria izatea, berdintasuna AEKn (irakasle-goaren soldata zein ikasle-goaren matrikula), Ikas-elkarteak bultzatu eta sortu, ikasle goa gehitu, didaktikaren “ofentsiba” (barnetegiak, mintza-elkarteak eta euskal tokiak ugaltu, herri euskalduna irakasle izatea lortu, irakasle-goaren hobekuntza iraunkorra), etab.

Urte berean hasten dira 1982an burutuko den erakundea legalizatzeko prozesua, horretarako estatutu batzuk egiten direlarik. Asoziazioaren figura bidea aukeratzen da, legala izateko era errazena baita; egia esanda, AEKk ez dio aparteko garrantzirik ematen gai honi eta arazo formal bezala ulertuko du. Dena dela, lurraldetasunaren arazoa³⁶ bezalakoak ez ziren falta; prozesu horren amaiera 1982ko abenduan iritsiko da Barne-Ministerioaren oniritziarekin³⁷.

Askoz ere garrantzi handiagoa izango du 1984ean Zestoan izandako mintegiak, gero AEKren erakundetze prozesuan funtsezkoa izango den Iratxeko mintegiaren ataria den neurrian. Erakundetzerantz emandako urratsaren balioa azpimarratu ondoren, izan duen eragin baliotsuagatik

(eraketa-maila, azpiegitura, metodologiari buruzko aurrerapenak, ...), ez da falta izandako hutsen inguruko ausnarketa (ikas-elkarte dinamikatik urrun, eskualde batzuetako desajusteak, ...), ezta HABESEA legeak erakundean izan ditzakeen (dituen) eraginei buruzkoa ere, “Euskal Herria berreuskalduntzeko proposatzen den alternatiba bakarra desagertzeko arriskuan jarri duelako”³⁸. Bere izaera eta alternatibaren arabera barne-azterketa egin ondoren, funtzionamendurako arau minimoen beharra ikusten da, erakunde bezala aurrera egiteko AEKren definizioa eta bere alternatibaren zehaztapena derrigorrezkotzat jotzen delarik.

Laburbilduz, “Euskararen herri-ikaskuntza bidez, nazio osoko pertsona nagusiak berreuskalduntzeko erakunde herritarra”³⁹ da AEK, eta bere alternatibaren ardatz nagusiak hauexek lirateke: irakaskuntzaren autonomia, gestio demokratikoa, herri-dinamika, lurraldetasuna eta publikotasuna⁴⁰. Beraz, ardatz hauek osatzen duten markoan AEKren erakundetzean aurre egitera erabakitzen du mintegi honek⁴¹: AEK bat bakarria izatea titularitatearen bidez (“honen helburua zentru edo eskualderen batek ez jokatzeko AEK orokorraren lineatik kanpo”⁴², berdintasuna AEKn (irakasle-go-gorputza sendotu –irakasle goa finkatu–), profesionaltasunaren ize-nean agerturiko “akademiakeria eta sasi-sindikalismoari” aurre egin militantzia sendotuz, ikas-elkarteak dinamizatu, alternatiba sendotzeko medio propioak indartu, etab.

Hilabete batzuk geroago, AEKk

negoziaketak berrastea eskatzen dio HABEri, honen erantzuna HABESEA legearen barrutian edo lege-eremuan guztia dela negoziagarri izan zelarik⁴³. AEKk egindako proposamenak honako lau puntuak zituen: helduen alorreko ikaskuntzaren dohaintasuna, AEKn egindako ikaskuntzaren errekonozimendu soziala, AEKren agiriko errekonozimendua eta irakaslearen homologazioa. Lehenengo puntuei dagokienez, HABEren erabakia honako hau da: “puntu hauei aurrerabiderik ez ematea, orain arte HABEk puntuon inguruan finkatu dituen irizpideei tinko eutsiaz⁴⁴; eta irakaslegoari dago-kionez, “AEKk zuzenduriko eskaerak ez onartzea eta arbuiatzea”⁴⁵, inongo kontraproposamenik eskaintzen ez duelarik: “HABEk bukatutzat ematen du euskalduntze-alfabetatze mailako irakaslearen homologazioa Ekainaren 22ko ebazpenean”. HABEren Zuzendari Orokorraren ebazpena dugu hau (EHAA, 1984-6-29), non helduen alfabetatze- eta euskalduntze-lanetan euskaltegi publiko eta pribatu homologatuetan aritzeko irakasleen prestaketa-frogetarako deialdia egiten den; habilitatze-prozesu baten bidez, orain arte irakasle bezala aritu izan, eta legeak eskatzen duen titulu akademikorik ez duenaren normalkuntza akademikoa lortu nahi da. Beraz, HABEk amaitutzat ematen du irakaslearen homologazioa. AEK, kontraproposamen baten zain dagoela, jasotako erantzuna erabatekoa da: “HABEren zuzendaritza-batzorde honen iritzia HABESEA legea garatzen duteneko dekretu, agindu eta ebazpenetan duzu, HABEren zuzendaritza-batzordeak ez baitzuen zuenean behar adinbateko argumentu sakonik

aurkitu lehendik erabilitakoak atzera botatzeko”, hauxe ezartzen delarik: “Euskararen egoera ez dago auzi, liskar eta euskaltzaleen arteko borrokatarako”. Ondorioz, AEKren balorazioa guztiz ezkorra da: ez du ez errekonozimendu politikorik lortu, ez irakaslearen homologaziorik, ezta diskriminazioa gainditzeko joera markatzerik⁴⁶.

AEKren egoerak, aurreko urteetako kezka eta arazoak ezin izan baititu ahalbideratu eta konpondu, Iratzen 1985ean egingo zen mintegiaren premia sortzen du⁴⁷. Urtebete lehenago Zestoan izandakoan geroari aurre egiteko erabakiak hartu arren, arazoak larriagotu egingo dira AEK barruan. Alde batetik HABESEA legeak eta bere garapenak sortutako egoerak AEKren ekonomi urritasuna areagotu egingo du, erakundearen baldintza kaskarrak handituz: “administrazioaren erasoak, ..., gehitu egin ziren eta ondorioz dirurik gabe aurkitu zuen AEKk bere burua, batez ere ikasturtearen bigarren partean eta AEKko zati handi bat soldatarik jaso gabe geratu zen hileetan zehar”⁴⁸. Eta, bestalde, aipaturiko honen eragina kontutan hartu behar delarik, aurretik ere erakunde barruan agertutako jarrera eta ikuspegi desberdinak era nabarmenagoan ageriko dira. Beraz, guzti honi aurre egin ahal izateko, AEKren jokabidea eta estrategia zein izango den erabakitzeke antolatzen da Iratxeko mintegia.

Esan behar da, orain arte mintegiak ebatzorganoak ez baziren, egoera orokorrak harturiko norabideak eraginda, erabakitzailerik izatera pasatzen

dira. Honek barne-kontraesanen maila areagotu egingo du; jadanik, 1981ko Zestoan izandako mintegitik AEK erakunde bihurtzeko erabakia begi onez ikusi ez zutenak, burokratizazio-, kontrol- eta zentralizazio-prozesutzat joz, oso kritiko agertuko dira⁴⁹. Laburbilduz, bi dira hemen guztiz kontrajarriak agertzen diren planteamenduak: alde batetik, erakundetze-prozesuak “aparatoa” indartu eta, zentzu horretan, erabaki propioak hartzeko ahalmena ahultzen delarik, eskualdeetako eta herrialdeetako autonomia kolokan jartzen duela pentsatzen dutenak; eta bestetik, Euskal Herri mailako strategi bateratu baten beharrari aurre egiteko erakunde sendo eta bakarraren aldekoak. Azkeneko hau nagusitzen da: “erakundetze-prozesua burutu nazio-ikuspegia galdu gabe”⁵⁰. Baina sorturiko enfrontamenduak ekiditzeko ahaleginek, kontraesanak hain handiak direnez, porrot egingo dute eta prozesu luze eta traumatikoari eutsi behar izango dio AEKk⁵¹.

Nolanahi ere, Zestoan erabakitako barrura begirako taktikarekin (alternatiba sendotu, AEK bat bakarra) aurrera egitea erabakitzen da, titularitateari dagokionez Altsasuko Biltzar Nazionalak erabakitakoarekin bat eginez: “AEKren barru-antolaketa berrerratu behar da, AEK koordinadora hutsa izatetik erakunde bihurtzera pasatuz. HABE legeak eta bere garapenak larriagotzen dute arazoa, HABEren erregistroan zentruen inskripzioa egiterako AEKren titularitatea, legez-tatzea eta barne-araudia eginda ez badago zentru bakoitzak bere aldetik egin behar duelako inskripzioa”⁵²

(AEKren barne-araudia Durangon izandako Biltzar Nazionalak onartuko du /84-XII-9).

Estrategi mailan hartutako erabakiaren funtsa Kulturgintza Bidezko Ikaskuntzan aurkituko dugu. Euskal Herria berreuskalduntzeko helburua lortu nahi izanez gero, euskararen irakaskuntzak, hau zentzu tradizionalan harturik, ez luke inongo etorkizunik baldin eta euskarak bizi duen egoera marginalaren aurrean estrategia globala eratzen ez bada. Hau da, ezin begiak itxi, marginalitatera bultzatzen duen euskarak bizi duen egoera diglosikoaren aurrean; beraz, hau gainditzera zuzenduko den irakaskuntza-mota baten beharra dago: “herrian intziditu behar dugu diglosiaren kontra borrokatzeko, bakoitzak euskara ikasi berarentzat eta baita ere herriari aportatzeko”⁵³. Herrian sustraitutako ikaskuntza hau, metodologia, egitura, etab. horretarako moldatu eta egokitu behar direlarik, “kaleko egoerari begira, diglosia gainditzeko ekintzak sistematikoki egitean oinarritzen da”⁵⁴; hots, “ikasleak ekintzan oinarritutako sistema honen bidez ikasiko luke euskara, diglosia gainditzera laguntzen duen bitartean”⁵⁵, euskarak jasaten duen egoera marginal horri aurre egiteko partehartzaille aktiboa izan behar du, ez “ikasle hutsa”, eta kulturgile bihurtu, kultur ekintzak sistematikoki burutuz.

Onartutako estrategia Kultur Bidezko Ikaskuntzari egokituko zaio, ikaskuntza antidiglosikoa AEKren hurrengo etaparako alternatibaren jokaleku eta ardatz nagusi izango

delarik. “Ikaskuntza berri honek, ikaslea diglosiaren kontra aportatzeko helburuz bultzatzen du herrira eta bere dinamikan parte hartzera eta ondorioz, hartzera joanda baino gehiago hartzen du emanaz”⁵⁶; honen abiapuntua, beraz, gizartean intzidentzia izatean datza, sustraiak herriak bizi duen problematikan dituelarik, ekintzaren bidez gizartean eragina izan dezan.

Kulturgintzaren bidea hartzeak aparteko eragina izango du AEK-engan. Irakaskuntza reglatuak neurri handi batean klasera mugatu du AEK, nahiz eta eskola eta kalearen arteko zubia eraiki nahi (eta batzuetan lortu). Baina orain irakaskuntza guztia horretan oinarrituko da, ekintzak sistematikoki eginez, klaseetatik atera eta ahalik eta toki gehienetan intzidituz. Estrategia honek metodologია eta ikerketa alorrean planteamendu berriak eskatzen ditu, baita zerbitzuen ugaltzea eta eraberritzea ere. Honek suposatzen du didaktika-arloak aparteko garrantzia hartuko duela, orain arteko sistema komunikatiboaren gainditzeak izugarritzko ahalegina eskatuko duelarik: kulturgintza ildoko ikaskuntza bultzatu, programazio-ardatz orokorrak definitu, horretarako material, dokumentazio, harremanak antolatu, eskualdeetako plangintzen eta ekintzen jarraipena, egiten denaren transmisio eta publizitatea, ...) Hain zuzen, horretarako beharrezko diren didaktika-lanek kohesioa izan dezaten Euskal Herriko Didaktika Taldearen Barne Araudia burutzea eta eskualdeetako Didaktika Taldeen osaketa gauzatzea erabakitzen da⁵⁷, finean, didaktikaren funtzionamendua

bultzatzea erakunde osoa antidiglosiari zuzenduz.

Iratxeko mintegi honetan hartutako erabaki garrantzitsuenetarikoen artean homologazioari dagokiona azpimarratu beharko litzateke (gogoratu HABESEA legearen ondorioz AEKko euskaltegi gehienak pribatu libre bezala geratu direla eta honek dakarren ekonomi ahalmena murrizteak erakunde osoaren ahultasunean eragiten duela). Euskal Elkarte Autonomoan ahal duten zentru gehienek homologatzea eskatzen da, baina ez zentru hauek diru guztia jasotzeko, erakundeak, barneko berdintasuna gorpuztu ahal izateko, Euskal Herriko zentru guztietan ikasleko-orduko diru-laguntza berdina banatzeko baizik. Era honetan dagoen zatiketa administratiboari aurre egiten zaio, diru alorrean behinik-behin aukera berdintsua emanez zentru guztiei onartutako Kulturgintza Bidezko Ikaskuntza gauza dezaten.

Ondorio gisa edo, esan dezakegu Iratxeko mintegiak inflexio-puntua markatzen duela AEKren bilakaeran. Hasierako erakundetze publikorantz zuzenduriko saiakeraren neurri bateko porrota izan zen hartatik⁵⁸, HABEren sorreraren eraginez, koordinakunde-izaera gainditzeko urtetako ahaleginen burutzea dugu Iratxan lorturiko erakundetzea. Honek, alfabetatze-euskalduntze erakunde nazional baten (bakarraren) proiektua sendotzea ekarri badu, ezin ahaztu ere prozesu honen ordaina ezin dela gutxietsi; hau da, gero azaltzen saiatuko garen erakunde-kanpo eta erakunde-barneko egoeraren dialektikan ulertu behar den

sorturiko mugimenduaren erakundetze berpolarizatua (lehenengo polarizazioa AEK eta HABEren artekoa da), hots, zatiketak ekarriko duen talde berrien sarrera (Euskalerrria Berreuskalduntzen taldeak (EB), Elkarlan, Ika).

Bestalde, Iratxeko mintegiak, aurreko zenbait planteamendu gaindizten delarik (metodo estrukturala eta funtzional komunikatiboa), irakaskuntza-estrategia oso bat planteatuko du, euskararen berreskurapena eta normalizazioa lortzeko egoera diglosikoa gainditzera zuzenduta dagoen estrategia, hain zuzen AEKren etorkizunerako ardatz nagusia izango den kultur gintza, Kultur Bidezko Ikaskuntza.

4. Instituzioen kontrola eta autonomiaren auzia

Inflexio-puntu bezala markatu dugun Iratxeko mintegiaz geroztik, eta zentzu orokor batean besterik ez bada, hiru dira, gure ustez, urte hauetako ardatz nagusiak: alde batetik, Nafarroako gobernuak euskara arloan, eta, beraz, helduei dagozkien euskararen irakaskuntzan, garatutako politika; Eusko Jaurlaritzak, bere proiektua bermatzen duen bitartean, AEKrekiko erakutsiko duen negoziaketarako jarrera, bestetik; eta, azkenik, garai berriko AEKren bilakaeran, aipaturiko bi instituzioen politikak zerikusi nabarmena izango dutelarik, erakundearen sendotzeak sortuko duen krisi eta polarizazioa, aparato-autonomia binomio dialektikoaren itzalpean.

Nafarroari dagokionez, eta historia

laburra eginez⁵⁹, lehenik eta behin, esan, jadanik 1977an Diputazioak Bilboko Hizkuntz Eskola Ofizialarekin plangintza bat egitea onartu zuela, beste hizkuntza batzuen artean euskarak ere bere txokoa zuelarik. Hurrengo urtean erabakiko du Iruñean, Hizkuntz Eskola Ofizialen modura, Nafarroako Hizkuntz Eskola ezartzea. Hau, ofizialtasun propioa lortu arte, Zaragozako Hizkuntz Eskola Ofizialari adskribatuko da akademikoki, egoera xelebrea sortarazten delarik: Zaragozan euskara-departamentua ipintzen du Ministerioak. Zer esanik ez, prozesu bitxi hau AEK Nafarroan nahiko hedaturik dagoela gertatzen da, baina 1979tik Diputazioarekin izandako harremanetatik, joera koordinakundea erabateko pribatizaziora kondentatzearena izan da. AEKk Diputazioari normalizazio instituzionala lortzeko urratsak ematen hastea proposatu zion, baina ez zuen erantzunik jaso. Gero, Euskaltzaindiaren bidez publikotasuna lortzeko hainbat saiakera egin bazen ere (Diputazio barruen dagoen “Principe de Viana” Instituzioan sartzeko proposamena), Diputazioak Euskararen irakaskuntza jende helduaren artean zabaltzeko Erakunde bat sortzeko ahaleginak porrot egin zuen⁶⁰. Hitz batean: Nafarroako Diputazioak, Hizkuntz eskola bultzatuz, ez du berreuskalduntzerako inongo urratsik eman, euskararen irakaskuntza beste edozein hizkuntza arrotzen irakaskuntzaren moduan ikusten duelarik, eta ez du alfabetatze-euskalduntzearekiko sentsibilitate-izpirik erakutsi.

“Ley Foral del Vasceune” delakoak (1986-XII-15) euskara arloan

Nafarroako Gobernuak ezarritako politikak garbi asko erakusten du instituzio honek duen euskararen berreskurapena lortzeko borondatea. Arautzen duen lurralde desberdinetako bereizketa⁶¹, euskararen erabilpen ofizialaren aldetik⁶² zein irakaskuntza-aren aldetik⁶³, ikustea besterik ez dago ulertzeko horrelako marko batek ez duela, inondik inora, berreuskalduntze-plangintza orokor bat bideratzeko ahalmenik eskaintzen; aldiz, lege honek ezarritako kontrolak euskararen egoera diglosikoa indartu egingo du. Are gehiago, zera esatera ausartuko ginateke: legeak adierazitako balizko interes kulturalak, euskara bultzatzeko interesak, euskal identitate nazionala piztuko lukeen edozein alternatibari aurre egiteko nahia estaltzen du.

Gure gaiari dagokionez, helduen irakaskuntza arautuko duen dekretuak (1988-V-19) alfabetatze-euskalduntze lanean ari diren taldeak subentzioa jaso ahal izateko sistema ezartzen du. Dekretu honetan, Euskal Elkarte Autonomoan HABESEA legearen garapenean gertatu zen antzera, euskaltegiek bete beharreko baldintzak araupetzen dira. Kasu honetan ere, irakaslegoari eskatzen zaion titulazioak aparteko garrantzia izango du, AEKk, horren aurrean, kalitatezko irakaskuntza ziurtatuko lukeen Irakasle Eskolaren alternatiba planteatzen duelarik. Asko luzatu gabe, esan daiteke dekretu honek Nafarroa osoan hedatuta dagoen erakunde bakarra, honek bere publikotasun-joera behin eta berriro aldarrikatu arren, pribatua izatera behartzen duela. Horretaz gain, oinarritzkoak diren hainbat gai ez ditu kontutan hartzen: ikastaro trinkoak,

negukoak zein udakoak, lurralde ahulenak beharko luketen laguntza eta proiektu bereziak,...

AEKren ustez bi proiektu oso desberdin daude jokoan, eta bi logika elkartezinak: Berreuskalduntzearen beharrak markatzen duen logikaren aurrean, neurri administratiboaren bidez, legalkeriaz baliatuz, proiektu horren aurka doan logika⁶⁴. Dekretuak, gure ustez, agerian uzten duen helburua ez da euskalduntzea bultzatzea Nafarroan, euskara ikasteko edonork duen eskubide bati aurre egiteko zerbitzu bat araupetzea baizik. Eta hau ez dator bat AEKren planteamendurekin: euskarak Nafarroan bizi duen egoera larriak eskatzen duen ikuspegi zabalak, helduen irakaskuntza kontrolatzeaz gain, norbanakakoa den maila hori, zerbitzu-maila, gainditzea eskatuko luke Gobernuaren aldetik, euskalduntze-alfabetatze mugimendua ito baino.

Dekretu honen eraginez, AEK barruan ondorio latzak sortaraziko duelarik, orain arte lortutako neurri bateko onarpen ofiziala amaitu egiten da; lehen gertatzen zen ez bezala, “AEKren izena ez da agertzen subentzioak banatzeko idazki ofizialetan”⁶⁵. Era berean, “AEKk hautatutako arduradun eta ebatzorganoak ez dira onartzen”⁶⁶; komunikazioak erakundeari bidali beharrean, Gobernuak zentrueri zuzentzen dizkie, lehen subentzioa AEKri ematen bazitzaion, herri erakunde gisa, orain, estatutuak eta eskaturiko Identifikazio Fiskala izan arren ez du jasotzerik izango. Zentruen goitik beherako kontrola lortzera zuzenduta dagoen politika

honek, gero argitzen saiatuko garen izugarritzko eragin kaltegarria izango du AEKrentzat.

Euskal Elkarte Autonomoari dagokionez, AEKk administrazioarekin akordio orokor bat lortzeko ahaleginak egiten jarraituko du, euskararen egoera diglosikoak akordio horren beharra duela uste baitu⁶⁷. Dena dela, ez da hau EEArri begira interesa izango lukeen akordioa; negoziaketak beste herrialdeetako egoeran ere eragina izango zukeen: "...xuxentzen gatazkaordezkatzen duzun instituzioak Ipar Euskal Herrian euskararen berreskuratzea sustatu behar duela komentaturik"⁶⁸. AEKren ustez, elkarlanaren beharra azpimarratzeko, hizkuntzaren garapena eta segurtasuna bermatzeko funtsezkoak diren hiru faktore hartu behar dira kontutan: biztanle-kopurua, hizkuntzaren erabilpen erreala eta herriaren motibazioa piztu ikasteko; eta faktore hauek gorpuzten duten erronkari ezin zaio instituzioek sorturiko irakaskuntza zerbitzuetatik erantzun herri-mugimenduan oinarritzen ez badira, honen ekimenak behar bezalako fruiturik emango ez duen bezala, berez ez dutelako lan hori burutzeko ahalmenik, laguntza ofizialik gabe.

Irudimenez jokatzera komeniko litzatekeen joko honi ateak itxi dizkio Eusko Jaurlaritzak, bere ustez kalitatezko irakaskuntza bermatzeko funtsezkoak diren helduen irakaskuntzarako baldintzak araupetuko dituen politika garatuz, kontrolpean jartzen duelarik, subentzio-iturria baita, HABEren sare publikotik at dagoen alfabetatze-euskalduntze lanean

dagoen gehiengoa (ikus HABESEA legeak izan duen garapena: euskaltegi-motak, irakasleagoa, homologazioak, diru-laguntzak, titulazioa, ikasketen edukiak, ikuskaritza,...).

Beharbada, administrazioaren jarrera gaindiezina ikusi ondoren, AEKk negoziaketa-mailan egindako apostu handiena EAJrekin lortutako akordioan aurki dezakegu⁶⁹, uste baitzuen modu honetan Jaurlaritzara iritsiko zen zubia eraikitzerik baze-goela. Akordio honen mamia honako puntuotan ikus daiteke: AEKko irakasleagoaren homologazioa hiru urteko epe barruan, amnistia fiskala, akordio bereziak eskualde ahuletan, AEKko irakasleagoaren eskubide historikoak, ...

Nolanahi ere, nahiz eta akordio honen inguruan hitzarmen bat lortzeko asmotan AEK eta HABEren arteko harremanak izan, "legearen logika" suertatzen da garaile. Azkeneko honen filosofiaren funtsa irakasle normal-kuntza akademikoan eta euskaltegi guztien homologazioan datza (beste gainontzeko arazoak ondorioa lirateke): "belaunaldi eta hamarkada jakin bateko egoerari ateak itxi behar zaizkio, behin-betirako itxi gainera, euskararen irakaskuntzaren kalitatearen izenean"⁷⁰; eta horregatik, kalitatea ziurtatu nahian, helduen euskalduntze-alfabetatze gintzako irakasleagoaren titulazio akademikoa arautzearen ardura hartzen du Administrazioak bere gain. Dakigunez, AEKren ikuspegia beste era batekoa da; aipaturiko kalitatea, sortzeko asmoa duen Irakasle Eskolaren eskutik etorriko litzateke, honek ziurtatuko

bailuke irakaslegoaren prestaketa egokia, eta ez edozein motatako unibertitate-agiriak. HABEko ordezkariak zalantzan jarriko dituzte AEKren ekinbide berriak, ezarritako arauak erabat baldintzatzen dituztelarik: “helduen euskalduntze-alfabetatzegintzan planteamendu profesional, enpresariala behar da”⁷¹, “aurrerabidea ezinezkoa da ekonomi arloan gizartean ohizkoak diren lanegoerak zaindu eta errespetatzen ez badira”⁷². AEKk ez du irizpide hau onartuko, erakunde barnean bere lehentasunak ezartzeko ukaezina den eskubidea aldarrikatzen duelarik. Ikus daitekeenez, irakaskuntzari buruzko guztiz kontrajarriak, elkartezinak, diren bi ikuspegi aurrean aurkitzen gara; batak administrazioaren kontrola ezinbestekotzat jotzen duen bitartean (beste hainbeste kalitatezko irakaskuntza normalizatu baten oinarriak finkatzeko), besteak, administrazioekiko harremanak arautzen dituzten ebazpenak oztopo gertatzen direla uste baitu –laguntzeko tresna izan beharrean– benetazko kalitate hori posible egingo lukeen alternatiba aurrerakoia gorpuzteko autonomia aldarrikatzen duelarik.

Esan bezala, saiakera honek ere ez du irtenbiderik izango, HABE legea garatze-prozesuan kokatzen baitu administrazioak akordio batera iristeko aukera bakarra. Itxaropen handia sortu zuen EAJrekin lorturikoa ezertan gauzatu ez delarik, egindako hutsak eragin aparta izango du AEKren barruan, ez baita gatazka Administrazioaren eta erakundearen arteko harremanetara mugatuko.

Iratxeko mintegian hartutako erabakiaren ondorioz, AEK erakundetzea burutzen ahaleginduko da, “erakundetzea berreuskalduntze prozesuaren garantia delako”⁷³, aipaturiko Kulturgintza bidezko Ikaskuntzak behar dituen zerbitzuen sorrerari egokituko zaiolarik (Irakasle Eskola, eskualdeetako didaktika-taldeak, Ikas Elkartea, berreuskalduntze-linea, ...). Baina ez dira enfrontamenduan bilakaturiko desberdintasunak eta kontraesanak falta izan prozesu honetan; esate baterako, gero kaleratuak izango diren Gipuzkoako arduradunen artean sortutako “Euskal Herria Berreuskalduntze” izeneko talde paraleloa⁷⁴, “Gasteizko zenbait irakaslek bultzaturik “Adur” izeneko elkarte paralelo pribatua”⁷⁵, edota, AEKren titularitatea dela eta, Nafarroako euskaltegi garrantzitsu batzuk (Ipes, Malderreka, Bortziri, Arturo Kanpion) Euskal Herriko Batzarrari gai horren inguruko erabakia berplantea zezan egindako eskaera⁷⁶, edo egunkarietan ohiartzun handia izandako R. Arregi edota G. Aresti euskaltegiek AEK uzteko hartutako erabakia.

AEK barruan sorturiko gertakizun hauek guztiz interesgarria den gai bati buruzko hausnarketaren beharra sortarazten dute: euskaltegien autonomia. Hemen aipatu ditugu AEKren erakundetze-prozesuaren aurrean izandako barruko kritikak (burokratizazioa, kontrola, zentralizazioa). Hauek areagotu egingo dira partaide batzuen artean, baina sinplekeria litzateke arrazoia AEKren erakundetzean bilatu nahi izango bagenu soilik; hau da, lehen genion bezala, erakunde-kanpo eta erakunde-barneko

egoeraren dialektikan ulertu behar da.

Alde batetik erakundearekiko atxikimendua proiektuarekiko identifikazioan oinarritzen dela diotenak eta, beraz, ondasunen jabetza, berdintasunerako neurriak, etab. kuestionatuz euskaltegien autonomia aldarrikatzen dutenak. Bestalde, erakundetzeak, koordinazioaren gaintik, herri-dinamika areagotzeko duen balioa azpimarratzen dutenak, erakundearen sendotzeak guztiz gogorrek diren baldintzetan alternatibaren gauzatzea ziurtatu baitezake⁷⁷.

Baina hau ez da erakunde barruko eztabaida hutsa; izan ere administrazioen politikek eragiten dute, aipatu ditugun arrazoiez gain, erakundetze-prozesuan, AEKn egoera objektibo desberdinak sortarazten dituztelarik eskualde eta euskaltegien artean. Ikusitakoaren arabera, badakigu, Elkarte Autonomoan zein Nafarroan, legeak ezarritako baldintzek bai euskaltegi- bai irakasle-mota desberdinen aurrean jartzen gaituzte, eta bereizketa hau zuzen zuzenean subentzio-sistemari lotzen zaio. Eta hau da, gure ustez, errealitate ekonomikoa hain zuzen, printzipioek azalaratzen duten gaintik, dagoen oinarritzko arrazoa. Erakundearen logikak baldintza egokiagotan egon zitezkeen euskaltegi eta bertako irakasleen aurrean lehentasuna emango dio, erakunde barruko berdintasunaren helburua aldarrikatuz, eskualde edota euskaltegi ahulen beharrei erantzun behar izateari (baita erakundearen beharrei ere –didaktika arloko antolaketak, irakaslearen prestakuntza, ..–) . Autonomiaren logikak, aldiz, erakun-

dearen eraginkortasunak sortzen duen ekonomi mailako zentralizazioa zein zentruen kontrolaren aurka, talde bakoitzaren gestio ekonomikoa propioa eta zentruen jabetza aldarrikatuko du.

Horrela, adibidez, eta lehen aipatu dugun Nafarroako subentzio-sistemaren ezarketaren inguruan, nahiz eta herrialdeko batzarrak hartutako erabakia bestelakoa izan, lehendik ere⁷⁸ titularitateari buruz kontrako iritzia, baita erakundetze-prozesuari buruzkoa ere⁷⁹ adierazi zuten euskaltegiek Gobernuak eskaturiko zentru bakoitzaren Identifikazio Fiskala (IFZ) aurkeztuko dute, erabakia ekonomi gestio autonomoan oinarritzen delarik. Ondorioz, ahaztu gabe Nafarroako batzarrak erabakitakoa errespetatu zutenak gobernuaren subentziorik gabe geratu zirela⁸⁰ -honek sortzen duen egoera larria konturan harturik, diru-arazo zuzenagatik zein AEKren onarpen ofizialaren aldetik-, erakundearen aldeko eta koordinakundearen aldekoen arteko eztabaida lehertuko da Euskal Herriko Batzar Nazionalak Nafarroakoak zentru horiek kanporatzeko hartutako erabakia berretsi egiten duenean⁸¹. Euskaltegi horiek, antzeko arrazoiengatik (autonomiaren defentsagatik) AEKtik kanpo geratuko diren Arabako beste batzuekin batera Ikastari (IKA) koordinakunde berria sortuko dute.

AEKk, erakundetzearen garapena, lan-kapazidade handia eman dion neurrian -Euskal Herri osoan berreuskalduntze-prozesua zabaltzeko, euskararen aldeko kontzientzia pizteko, barneko zerbitzuak egoki garatzeko, ...-, oso garrantzitsua dela

pentsatzeaz gain, sorturiko disfuntzio, gatazka eta arazoengatik inguruko hausnarketa burutuko du⁸². Ondorioz, oinarrizko antolakuntza eta nazio-mailako dinamikaren arteko orekatze-prozesu bati ekiten zaio, erakundea AEKide guztien inplikazioa eta parte hartzea bultzatu beharri egokituko zaiolarik, dinamika herritarrean eta gestio demokratikoan oinarrituriko herri-ikaskuntzan, kulturgintzan sakontzeko, Euskal Herri osoko erakundearen balioa azpimarratuz, berreuskalduntze-prozesuan diharduten talde guztien elkarlana beharrezkotzat jotzen delarik ere.

Izan ere, eta hemen aztertzen saiatu garen ingurunean kokaturik (nahiz eta horrelako lan batek ezartzen dituen mugak ukaezinezko garrantzia izan duten talde batzuei buruz aritzea eragotzi), alfabetatze-euskalduntze mugimenduaren bilakaerak, institu-

zioen zein mugimenduaren beraren ardatz nagusia izan den -den- AEKren eraginez, panoramika berri baten aurrean jartzen gaitu. Horra hor, oraingo egoeraz ohar gaituzen, aurkitzen dugun berreuskalduntze-lanetan diharduten talde eta erakundeen zerrenda zabala: Euskal Elkarte Autonomoan administrazioak bultzaturiko Udal Euskaltegien sarea, Labayru, Maizpide, Elkarlan, Euskal Herria Berreuskalduntzen taldeak, IKA edota AEK bera, garrantzitsuenetarikoa aipatu arren. Egoera honek, gure ustez, zera eskatzen du: berreuskalduntzera zuzenduriko helduen irakaskuntzaren mundua berrantolatu beharko litzateke elkarlanerako bide berriak urratuz, euskararen berreskurapena helburutzat harturik honen inguruan dabilzan talde eta erakundeen koordinazio gune baliogarria EKBk eskaintzen duena izan daitekelarik.

Oharrak

- 1 “AEKren Irakaskuntz Alternatiba”. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 2 “La verdad acerca de la planificación de las instituciones oficiales sobre la reeusaldunización y alfabetización de adultos en las provincias vascongadas”. 1982. AEKko Artxiboa. Donostia.
- 3 Titulorik gabeko dokumentua. 1982, 8-9. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 4 Ibid., 9.
- 5 “AEKren Irakaskuntza Alternatiba (1981-82)”. 1981. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 6 “Euskal Eskolak. Nora Goaz?”. 1980. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 7 “TXEPETX” (1981): *El espacio simbólico*. Eusko Ikaskuntza.
- 8 “Irakaskuntzarako bitartekoak”. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 9 “AEKren Irakaskuntz Aternatiba”, 12. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 10 Izenik gabeko dokumentua. 1982, 55. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 11 “AEK eta Euskara Irakaskuntza Publikoa”. 1982. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 12 Izenik gabeko dokumentua. 1982, 60-61. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 13 “82-83 Ikasturteko Informea”. 1983, 3. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 14 HABESEA legea, I idazpurua.
- 15 Ibid., II idazpurua.
- 16 Ibid., III idazpurua.
- 17 Ibid., IV idazpurua.
- 18 Ibid., bigarren atala, g.
- 19 Ibid., “HABEren Eraentza Sailak”.
- 20 Ibid., III idazpurua.
- 21 Ibid., III idazpurua, 13. atala.
- 22 Ibid., III idazpurua, 16. atala, a.
- 23 Ibid., III idazpurua, 16. atala, b.
- 24 Ikus legearen V atala.
- 25 Ibid., 8. atala.
- 26 “Altsasuko Biltzar Nazionala (1984-I-22)”. 1984, 3. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 27 HABESEA legea, III idazpurua, 7. atala.
- 28 Ibid., 15. atala.
- 29 “Altsasuko Biltzar Nazionala (1984-I-22)”. 1984, 3. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 30 “HABE legea eta bere desarroiloaren historia”. 1984, 4. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 31 “Zestoako Mintegia. 1984.eko irailak 7-8-9”. 1984, 3-4. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 32 “Altsasuko Biltzar Nazionala”. 1984, 4. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 33 “HABE legea eta bere desarroiloaren historia”. 1984, 4. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 34 “HABESEA legeari AEKk egindako enmendakinak”. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 35 “Zestoako Mintegia”. 1981. AEKko Artxiboa. Donostia.

- 36 Barne-Ministerioak AEKri igorritako idazkia; 1982-V-14. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 37 Barne-Ministerioak AEKri igorritako idazkia; 1982-XII-2. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 38 “Zestoako Mintegia. 1984.eko irailak 7-8-9”. 1984, 12. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 39 Zestoako Mintegian onartutako txostena.(“A txostena”). 1984, 5. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 40 Ibid., 12-16.
- 41 “Zestoako Mintegia. 1984.eko irailak 7-8-9”. 1984. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 42 “AEKren barne-araudia, legeztatzea eta titularitateari buruz (laburpentxo)”. 1986, 1. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 43 “AEKren eskaria kultur Sailburu berriari”. 1985, 10. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 44 HABEk AEKri igorritako idazkia. (1984-XI-19).
- 45 HABEk AEKri igorritako idazkia (1984-X-22).
- 46 “84-85 ikasturteko balantzea”. 1985. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 47 “85-86 ikasturteko balantzea”. 1986. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 48 Ibid., 1.
- 49 “Iratxeko Mintegia. Aktak”. 1985. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 50 Ibid., 50.
- 51 Dossiera. 1991. AEKko Artxiboa. Donostia.
- 52 “AEKren barne-araudia, legeztatzea eta titularitateari buruz”. 1986, 1. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 53 “Iratxeko Mintegia. Aktak”. 1985, 19. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 54 DIAZ, E. (1981): “Alfabetatze Batzordea. Sorrera eta bilakaera”. *Ele*, 8.zk., 81.
- 55 Ibid.
- 56 “Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK)”. 1985, 8. Iruñeko euskararen aldeko mugimenduaren topaketak.
- 57 “Iratxeko Mintegia. Aktak”. 1985, 51. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 58 “AEKren Birreraketarako aurreproiektua”. 1980. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 59 “Nafarroako Hizkuntz Eskola”. 1985. Iruineko euskararen aldeko mugimenduaren topaketak.
- 60 Ibid.
- 61 “Ley Foral del Vasconce” (18/1986-XII-15), Disposiciones Generales, art.5.
- 62 Ibid., Titulo 1.
- 63 Ibid., Titulo 2.
- 64 Izenik gabeko dokumentua. 1988. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 65 Ibid., 5.
- 66 Ibid.
- 67 “AEK eta administrazioaren arteko harremanak”. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 68 Iparraldeko AEKk Kultur Sail Buruari igorritako idazkia; 1985-II-15. AEKko Artxiboa. Donostia.
- 69 “EAJ-AEKren arteko ituna”. 1988. AEKko Artxiboa. Bilbo.

- 70 HABEren Zuzendari Orokorrak AEKri igorritako gutuna non bi erakundeak egindako bilera-agiriak hartzen diren. 1988, 2. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 71 Ibid., 4.
- 72 Ibid., 5.
- 73 “85-86 ikasturterako Plangintza proposamena”. 1985, 8. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 74 Dossierra. 1991, 10. AEKko Artxiboa. Donostia.
- 75 Ibid., 11.
- 76 Barne erabilpenerako dokumentua. 1986. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 77 “Aiegiko Mintegia”. 1988. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 78 Barne erabilpenerako dokumentua. 1986. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 79 “Aiegiko Mintegia”. 1988. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 80 DIAZ, op.cit., 87.
- 81 “Berriozarreko Batzar Nazionala”. 1989. AEKko Artxiboa. Bilbo.
- 82 “Aiegiko Mintegia (VII mintegia)”. 1990. AEKko Artxiboa. Bilbo.